# *Instruktorea*



## Aurkibidea

**Orrialdea**

BETEKIZUNAK ........................................ 3

ATARIKOA ........................................ 4

IKASTURTEAK - IKASTEGIAK ........................................ 6

IKASTEGIARI BURUZKO DATUAK ........................................ 7

IKASTEGIAREN ARAUDIA ........................................ 7

DATU PERTSONALAK ........................................ 7

PRAKTIKAK ........................................ 8

ZIURTAGIRIA ........................................ 9

ALBISTEAK ........................................ 10

AURKIBIDE ALFABETIKOA ........................................ 11

**BETEKIZUNAK**

- Sistema Eragilea: Windows XP SP3, Windows 7, Macintosh, Linux.
- Windows XPn, Internet Explorer nabigatzailea 7. bertsiotik aurrera; Firefox-en 3. bertsiotik aurrera; Google Chrome-n 35.0 bertsiotik aurrera eta Safari-n 5.17 bertsiotik aurrera.
- Windows 7-n Internet Explorer nabigatzailea, 9. bertsioa (32 biteko arkitekturak); Firefox-en 23.etik aurrera; Google Chrome-n 35.0 bertsiotik aurrera; Safari-n 5.17 bertsiotik aurrera.
- Macintosh-en hauek exekutatzeko bakarrik: Web HTML (No Oracle Form) profilak, Firefox nabigatzailea 23.etik aurrera; Safari-n 7. bertsiotik aurrera.
- Linux-en hauek exekutatzeko bakarrik: HTML Web-a(No Oracle Form), Firefox nabigatzailea 23.etik aurrera.
- Java, JRE 6 Update 16-etik JRE 7 Update 45-era (32 bit).
- Word 2007.
- Acrobat Reader (8.etik 11.era).
- Izenpe User 3.2.1.0 kit-a

## ATARIKOA

Dokumentu honetan deskribatzen da borondatezko praktikak kudeatzeko moduluak GAUR plataformaren bidez instruktore gisa identifikatutako erabiltzaileari (enpresari lotua) eskainiko dion funtzionaltasuna.
"Bestelako erabiltzaileak" aukeraren bidez sartu beharko da bertara.




Kudeaketa zein hizkuntzatan egin nahi den identifikatzea



Aukeratu "instruktorea" aukera desberdinen zerrendan:




Eta jasotako erabiltzailea eta pasahitza txertatu.

Erabiltzaile berri bat eskatu behar izanez gero, "Pasahitza ahaztu zait" botoia sakatu behar da, "Pasahitza gogoratu" pantaila irekiko duena. Bertan, kolektiboaren eta erabiltzailearen identifikatzailearen berri eman beharko da, eta "Gakoa posta elektronikoz berreskuratu" botoiarekin berreskuratzeko aukera emango digu. Mezua onartu beharko da, posta jaso ondoren.




Aplikazioak honen antzeko leiho berri bat irekiko du, eta bertan ikastegia eta ikasturte akademikoa hautatu beharko dira, gezien bidez ››.




Ikastegitik enpresentzako hasierako komunikazio bat egin bada ondorengo pantailaren antzeko pantaila bat bistaratuko zaigu, eta onartu egin beharko da jarraitzeko.




Ikasturte akademikoa hautatzerakoan, aplikazioak hurrengoaren antzeko pantaila bat irekiko du:




## IKASTURTEAK - IKASTEGIAK

Aukera honetatik, beste ikastegi edo/eta ikasturte batzuetara sartzeko bidea ematen du aplikazioak. Menuko aukera hau sakatzean, aplikazioak modulura sartzerakoan ateratzen den pantaila bera erakusten du.



## IKASTEGIARI BURUZKO DATUAK

Menuko aukera honen bidez, aplikazioak ikastegiko arduradunak borondatezko praktiken kudeaketari buruz sartutako deskribapena erakusten du.




## IKASTEGIAREN ARAUDIA

Menuko aukera honen bidez, aplikazioak esteka bat erakusten du, ikastegiko arduradunak aukeran txerta dezakeena. Esteka horrek, web-orrira eramango du eta bertan ikastegiak egiten dituen borondatezko praktiken kudeaketari buruzko araudia edo prozedura deskribatzen da.




## DATU PERTSONALAK

Aukera hau sakatzean, aplikazioak inprimaki bat erakutsiko du sisteman sartzen ari den instruktorearen (begiralearen) datu pertsonalekin eta lotuta dituen enpresekin.




Lotutako datu pertsonalak aldatu ahal izango dira: izena, abizenak, helbide elektronikoa, etab…

## PRAKTIKAK

Menuko aukera hori sakatzean, aplikazioak honen antzeko pantaila erakutsiko du eta bertan, esleitutako praktikak zerrendatuko dira.




Lerro bakoitzeko praktika bat erakusten da, eta praktika bakoitzeko, bi botoi:

- ⊪›› : praktikari buruzko funtsezko datuetara kontsulta moduan sartzeko, lotura duen irakasle-tutorearen datuekin.




- edo : praktikari buruzko txostena-inkesta ikusteko edo/eta betetzeko.
  Berdea: txostena bete eta amaitu ondoren agertzen da.




Praktika erregistratzeko eskuinean, dagokion ikonoan klik eginez, egutegia ikusi ahal izango da. Egutegi horretan, ez egoteak jaso beharko dira, eta, nolanahi ere, aldez aurretik tutoreari praktikaren berri eman beharko zaio.




## ZIURTAGIRIA

Instruktore horri lotutako enpresen zerrenda agertzen da, eta horietako bakoitzeko, amaitutako praktiken multzoa. Ziurtagiria eskatzeko aukera emango da, kudeatzeke dagoen eskaerarik ez badago.



## ALBISTEAK

Menuko aukera honen bidez, ikastegiko arduradunak ikastegian sartutako albisteak bistarazten ditu aplikazioak, "Kanpo-tutorea" edo "Guztiak" erabiltzaileei zuzenduta.



## AURKIBIDE ALFABETIKOA

**Orrialdea**

ALBISTEAK ........ 9
ATARIKOA ........ 4
BETEKIZUNAK ........ 3
DATU PERTSONALAK ........ 7
IKASTEGIAREN ARAUDIA ........ 7
IKASTEGIARI BURUZKO DATUAK ........ 7
IKASTURTEAK - IKASTEGIAK ........ 6
PRAKTIKAK ........ 8
ZIURTAGIRIA ........ 9